Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA, zeinaren bidez BATUZ proiektuaren tributu-betebeharrak garatzen baitira, hauek aldatuta: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetu dituen Araudia, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia eta Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se desarrollan las obligaciones tributarias del proyecto BATUZ, mediante la modificación del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, el Reglamento de gestión de los tributos del Territorio Histórico de Bizkaia y el Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación.

Uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauaren bidez, ekonomia-jardueren etekinak kontrolatzeko sistema integral bat eta tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko neurriak ezartzen dira. Horretarako, aldatu egin dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorra. 5/2020 Foru Araua onartuta, Bizkaian aurrerapen kualitatibo bat egin da BATUZ izeneko estrategia integral horren inplementazioan, ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsona edo entitate guztien tributazioa kontrolatzeko, edozein delarik ere haien eragiketen tamaina edo bolumena.

Con la aprobación de la Norma Foral 5/2020, de 15 de julio, por la que se establece un sistema integral de control de los rendimientos de las actividades económicas, así como medidas para facilitar el cumplimiento de las obligaciones tributarias, mediante la modificación de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, la Norma Foral del Impuesto sobre Patrimonio y la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, se ha realizado un avance cualitativo en Bizkaia en la implementación de la estrategia integral denominada BATUZ, de control de la tributación de todas las personas o entidades que desarrollan actividades económicas, con independencia de su tamaño o

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

Halaber, aurrerapauso bat da zergadunei tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko kudeaketa-eredu berriak ezartzeko bidean.

Foru-arau horren artikuluetan zehar, hainbat gairen edukia geroago erregelamenduz garatzeko utzi zen, eta eginkizun hori burutu nahi da foru-dekretu hau onetsita. Foru-dekretu honek 6 artikulu, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bi eta azken xedapen bat ditu, eta azken horretan ezartzen da xedapenek ondorioak izango dituzten data, artikulu bakoitzean zehaztutakoa dela bide.

1. artikulua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren aldaketari buruzkoa da; Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori. Lehenengo eta behin, aldaketa bat sartzen da zergadunek kobrantzak eta ordainketak egiteko irizpidea aplikatzeari dagokionez. Ondoren, 113 bis artikulua gehitzen da, eta, artikulu horretan, ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistemari –TicketBAI sistemari– buruzko zenbait alderdi garatzen dira. Lehenik eta behin, zehazten da sistema informatiko horrek bete beharko dituen ezaugarri eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak foru-agindu bidez

volumen de operaciones, así como en el establecimiento de nuevos modelos de gestión que faciliten a los y las contribuyentes el cumplimiento de las obligaciones tributarias.

A lo largo del articulado de la citada Norma Foral se remitían diversas cuestiones a un posterior desarrollo reglamentario de su contenido, tarea que se lleva a cabo mediante la aprobación del presente Decreto Foral. El mismo consta de 6 artículos, una disposición adicional, dos disposiciones transitorias y una disposición final, estableciendo esta última la fecha en la que sus preceptos surtirán efectos por referencia a lo indicado en cada uno de sus artículos.

El artículo 1 está dedicado a la modificación del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 47/2014, de 8 de abril. En primer lugar, se introduce una modificación en relación con la aplicación del criterio de cobros y pagos por parte de las y los contribuyentes para, a continuación, incluir un nuevo artículo 113 bis, en el que se desarrollan ciertos aspectos referentes al sistema garante de la trazabilidad e inviolabilidad de los registros que documenten entregas de bienes y prestaciones de servicios, denominado sistema TicketBAI. Primeramente, se determina que las características y especificaciones técnicas y funcionales que deberá cumplir este sistema

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

onartuko direla, eta lehen aldiz agertzen da software bermatzailearen erregistroaren aipamena. Erregistro horretan inskribatu beharko dira aipatutako ezaugarriak eta zehaztapenak betetzen dituzten software espezifikoaren garatzaileak eta garatutako softwareak. Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetu dituen Araudiaren 10. artikuluan jasota dago erregistro horren funtzionamendua, eta arauketa foru-dekretu honen 4. artikuluan xedatzen da.

Jarraian, aipatutako 113 bis artikuluak zergaldi bakoitzeko gehienez 100 faktura edo egiaztagiri emateko aukera jasotzen du, Bizkaiko Foru Aldundiak zergadunen eskura jarriko duen aplikazio informatikoa erabiliz. Halaber, zergadunak erabiltzen duen sistema informatikoak eragiketa jakin batzuei dagokienez bete beharko dituen ezaugarri eta zehaztapen tekniko eta funtzionalei buruzko betebeharrak betetzetik zer baldintzatan salbuetsi ahal izango den zehazten da. Bestalde, 113 bis artikuluak Bizkaiko Lurralde Historikoaren zerga-betebehar formalak araupetu dituen Araudira igortzen du, TicketBAI sistema erabiltzeagatik sortzen den informazioa zerga-administrazioari noiz bidali behar zaion jakiteko. Gainera, zehazten du eragiketaren justifikazio-dokumentuan hartzailearen identifikazioa jaso behar ez

informático se aprobarán por Orden Foral, apareciendo por vez primera la mención al registro de software garante, que será aquel en el que deberán inscribirse tanto los desarrolladores del software específico que cumpla las mencionadas características y especificaciones como los propios softwares desarrollados. El funcionamiento de este registro se recoge en el artículo 10 del Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, cuya regulación se establece en el artículo 4 de este Decreto Foral.

A continuación, el mencionado artículo 113 bis recoge la posibilidad de expedir un máximo de 100 facturas o justificantes por cada periodo impositivo mediante la utilización de la aplicación informática que la Diputación de Bizkaia pondrá a disposición de los y las contribuyentes y asimismo, se especifica bajo qué circunstancias podrá establecerse una exoneración del cumplimiento de las obligaciones relativas a las características y especificaciones técnicas y funcionales que deberá cumplir el sistema informático utilizado por el o la contribuyente en relación a determinadas operaciones. Por otro lado, el artículo 113 bis remite al Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia para conocer el plazo en el que deberá remitirse a la Administración tributaria la

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

denean, identifikazioa kontuan hartuko dela igorleak dagozkion betebeharrak betetzen dituen egiaztatzeko. Helburu horretarako, hartzailea izango da Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikora behar bezala identifikatuta sartu eta egiaztapena lehenengo egiten duena.

información que se genere con motivo de la utilización del sistema TicketBAI y especifica que, cuando no deba constar en el documento justificativo de la operación la identificación de su destinatario o destinataria, tendrá esta consideración a efectos de realizar la verificación respecto del cumplimiento de las obligaciones que le corresponden a su emisor, quien, habiendo accedido a la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia identificándose debidamente, lleve a cabo la verificación en primer lugar.

Azkenik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan egindako aldaketei dagokienez, 114. artikulua aldatzen da, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuari buruzkoa. Horrela, zehazten da zerga honen ondorioetarako ekonomia-jarduerarik garatzen ez duten eta higiezinen errentamendu-eragiketak egiten dituzten zergadunek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro-liburuak eramatea, fakturazio-erregistroak elektronikoki hornituz, betetzat joko dela aipatutako 114. artikuluan zehazten den eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua eramanez. Era berean, zehazten da ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla eta sortu behar diren elektronikoki sinatutako fitxategi informatikoak eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuko sarreren eta emandako fakturen kapituluan erregistratuko direla.

Por último, en relación con los cambios introducidos en el Reglamento de Impuesto sobre la Renta de las Persona Físicas, se modifica el artículo 114, relativo al libro registro de operaciones económicas. Así, se especifica que la llevanza de los libros registros del Impuesto sobre el Valor Añadido mediante el suministro electrónico de los registros de facturación por parte de las personas contribuyentes que, no desarrollando actividades económicas a efectos de este Impuesto, realicen operaciones de arrendamiento de inmuebles, se entenderá asimismo cumplida mediante la llevanza del libro registro de operaciones económicas al que se refiere el mencionado artículo 114, y se concreta que los ficheros informáticos firmados de forma electrónica que deben generarse por las entregas de bienes y prestaciones de servicios se registrarán en el Capítulo de

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

ingresos y facturas emitidas del libro registro de operaciones económicas.

Foru-dekretu honen 2. artikuluan, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduari eragiten dioten aldaketak jasotzen dira. Lehenik eta behin, artikulu berri bat sartzen da, 47 bis. Haren bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudian aipatutako 113 bis artikuluaren bidez egindako aldaketen antzeko edukia duten aldaketak ezartzen dira. Horrez gain, Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden eragiketei dagokienez, ondasun-emateengatik eta zerbitzu-prestazioengatik elektronikoki sinatutako fitxategi informatiko bat sortzeko betebeharretik salbuesten da, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 20. artikuluko Bat apartatuko 8., 13. eta 14. zenbakietan xedatutakoa betetzeko, kasu hauetan: eragiketa horiek sozietateen gaineko zergatik guztiz edo partzialki salbuetsita dauden entitateek egiten dituztenean, edo Irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauaren II. tituluan jasotako zerga-araubidea aplikatu behar zaien entitateek egiten dituztenean.

En el artículo 2 de este Decreto Foral se recogen las modificaciones que afectan al Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 203/2013, de 23 de diciembre. En primer lugar, se introduce un nuevo artículo 47 bis, que establece modificaciones de contenido similar a las realizadas a través del ya comentado artículo 113 bis en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Persona Físicas. Adicionalmente, se exonera de la obligación de generar un fichero informático firmado de forma electrónica por las entregas de bienes y prestaciones de servicios respecto de aquellas operaciones que se encuentren exentas del Impuesto sobre el Valor Añadido, en aplicación de lo dispuesto en los números 8, 13 y 14 del apartado Uno del artículo 20 de la Norma Foral 7/1994, de 9 de noviembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, cuando dichas operaciones sean realizadas por entidades total o parcialmente exentas en el Impuesto sobre Sociedades, o por aquellas otras a las que resulte de aplicación el régimen fiscal recogido en el Título II de la Norma Foral 4/2019, de 20 de marzo, de Régimen Fiscal de las Entidades sin fines lucrativos y de los Incentivos Fiscales al Mecenazgo.

Jarraian, 47 ter artikulua gehitzen da, eragiketa

Seguidamente, se introduce un nuevo artículo

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

ekonomikoen erregistro-liburuari buruzkoa. Artikulu horretan zehazten denez, ondasun-emate eta zerbitzu-prestazioengatik sortu behar diren elektronikoki sinatutako fitxategi informatikoak, kasu honetan, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuko emandako fakturen kapituluan erregistratuko dira. Azkenik, 47 quater artikulu berriak Ogasun eta Finantza Sailak zergadunen eskura jarriko dituen aitorpen-zirriborroei buruzko informazioa jasotzen du, zerga-administrazioaren eskura dagoen informaziotik abiatuta eta, zehazki, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuan jasotako informazioa oinarri hartuta.

47 ter dedicado al libro registro de operaciones económicas, que precisa que los ficheros informáticos firmados de forma electrónica que deben generarse por las entregas de bienes y prestaciones de servicios se registrarán, en este caso, en el Capítulo de facturas emitidas del libro registro de operaciones económicas. Por último, el nuevo artículo 47 quáter recoge la información referente a los borradores de declaración que el Departamento de Hacienda y Finanzas pondrá a disposición de los contribuyentes partiendo de aquella información que obre en poder de la Administración tributaria y, en particular, de la información que conste en el libro registro de operaciones económicas.

3. artikuluaren edukia Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduan 4 bis artikulu berri bat sartzera mugatzen da (Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 15eko 48/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori). Artikulu berri horrek Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 47 quater artikuluan xedaturikora igortzen du (aitorpen-zirriborroei buruzkoa). Horrela, adierazten du haren edukia aplikatuko dela Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, establezimendu iraunkor baten bidez eskuratzen dituzten errenten aitorpenei dagokienez.

El artículo 3 circunscribe su contenido a la inclusión de un nuevo artículo 4 bis en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, aprobado por Decreto Foral 48/2014, de 15 de abril, de la Diputación Foral de Bizkaia. Este nuevo artículo realiza una remisión a lo dispuesto en el ya comentado artículo 47 quáter del Reglamento de Impuesto sobre Sociedades, referido a los borradores de declaración, indicando que su contenido será de aplicación en el caso de los y las contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de no Residentes en relación con las declaraciones correspondientes a las rentas que obtengan a través de un establecimiento permanente.

Foru-dekretu honen 4. artikuluaren bidez,

Mediante el artículo 4 de este Decreto Foral se

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetu dituen Araudia aldatzen da (Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onartutakoa), TicketBAI sistema ezartzearen ondoriozko betebehar berriak behar bezala betetzen direla ziurtatzeko eta zerga-administrazioak horiek egiaztatzea errazteko. Hala, lehenengo eta behin, zehazten da «TicketBAI» software bermatzailearen erregistroa Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Ogasunak dituen zentsuetako bat izango dela. Erregistro horretan inskribatu beharko dira, batetik, TicketBAI sisteman eskatzen diren ezaugarri eta zehaztapenak betetzen dituzten software espezifikoaren garatzaileak, eta, bestetik, garatutako softwareak.

Aurrerago, 10. artikuluan, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetu dituen Araudiak zehazten du zer baldintza bete behar diren erregistro horretan inskribatzeko, eta adierazten du erregistro horri erreferentzia egiteko «software bermatzailearen erregistroa» izendapena erabili beharko dela aipatzen den araudian. Software bermatzailearen erregistroan inskribatzeko egin beharreko urratsei dagokienez, alta-adierazpena aurkeztu beharko da Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez. Horretarako, inprimaki bat bete beharko da, softwarea garatzen duen pertsonak edo entitateak sinatu beharreko

modifica el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 205/2008, de 22 de diciembre, con el fin de asegurar el correcto cumplimiento de las nuevas obligaciones derivadas de la implantación del sistema TicketBAI y facilitar su comprobación por parte de la Administración tributaria. Así, en primer lugar, se determina que el Registro de software garante "TicketBAI", en el que deberán inscribirse tanto los desarrolladores del software específico que cumpla las características y especificaciones exigidas en el sistema TicketBAI como los propios softwares desarrollados, será uno de los censos de los que dispone la Hacienda Foral del Territorio Histórico de Bizkaia.

Más adelante, en su artículo 10, el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales determina cuales son los requisitos que deben ser cumplidos para inscribirse en el mencionado registro, señalando que el mismo será referido como "registro de software garante" en aquella normativa en la que sea aludido. En cuanto a los pasos necesarios para realizar la inscripción en el registro de software garante, se establece su formalización mediante la presentación de una declaración de alta a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, debiendo cumplimentarse por este medio un formulario al efecto que contendrá una

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

erantzukizunpeko adierazpena izango duena.

Software bermatzailearen erregistroan alta emateari dagokionez, hiru gai zehazten dira. Lehenengo eta behin, inskripzioa eskatzen duenak horri buruzko adostasuna adierazten badu, erregistratutako softwarea Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean argitaratuko den zerrenda batean sartuko da. Bigarren, inskripzioak inskribatutako softwareari lizentzia bat esleitzea ekarriko du, eta software hori erabiliz sortu behar diren fitxategi informatikoetan sartu beharko da, egindako ondasun-emateen eta zerbitzu-prestazioen ondorioz. Hirugarren, argitzen da erregistroan alta emateak ez duela esan nahi zerga-administrazioak homologatuko duenik inskribatutako softwareak TicketBAI sistemak eskatzen dituen ezaugarri eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak betetzea.

Ondoren, 10. artikuluan bertan, software bermatzailearen erregistrotik baztertzeko prozedura bat arautzen da. Prozedura hori ofizioz hasiko da zerga-administrazioak egiaztatzen duenean inskribatutako software batek ez dituela betetzen eskatutako ezaugarri eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak. Prozedura hori amaituko da softwarea erregistrotik kanpo uzten denean, ez-betetzea prozedura horretan zehar zuzendu ez den kasuetan. 10. artikulu horrek, azkenik,

declaración responsable a suscribir por la persona o entidad desarrolladora del software.

En relación con el alta en el registro de software garante, se precisan tres cuestiones. En primer lugar, que en caso de que exista conformidad por parte de quien solicita la inscripción, el software registrado se incluirá en una lista que se hará pública en la página web de la Diputación Foral de Bizkaia. En segundo lugar, que la inscripción supondrá la asignación de una licencia al software inscrito, que deberá incluirse en los ficheros informáticos que deban generarse mediante la utilización de dicho software por las entregas de bienes y las prestaciones de servicios realizadas. En tercer lugar, se clarifica que el alta en el registro no supondrá la homologación por parte de la Administración tributaria del cumplimiento por el software inscrito de las características y especificaciones técnicas y funcionales requeridas por el sistema TicketBAI.

A continuación, dentro del propio artículo 10, se regula un procedimiento de exclusión del registro de software garante, que se iniciará de oficio cuando la Administración tributaria compruebe que un software inscrito no cumple con las características y especificaciones técnicas y funcionales requeridas. Dicho procedimiento finalizará con la exclusión del software del registro cuando el incumplimiento no se haya subsanado en el curso del mismo. Este artículo 10 finaliza estableciendo un

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

elkarrekikotasun-kasu bat ezartzen du, eta aplikagarria izango da zergadunek Arabako Foru Aldundiak edo Gipuzkoako Foru Aldundiak gaitutako eta software bermatzailearen erregistroaren baliokidea den erregistro batean inskribatutako software bat erabiltzen dutenean.

Software bermatzailearen erregistroa arautzeko egin beharreko aldaketen ondoren, foru-dekretu honen 3. artikuluan ezinbesteko beste aldaketa batzuk egiten dira, batetik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuaren edukia TicketBAI sistema ezartzearen ondoriozko baldintza berrietara egokitzeko, eta, bestetik, liburu horren edukia eta funtzionamendua arautzeko, Sozietateen gaineko Zergaren zergaduna denean zerga hori eraman eta aurkeztu behar duena.

Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburu horiei dagokienez, berezitasun batzuk nabarmendu behar dira. Lehenik eta behin, ezartzen da Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkion erregistro-liburuak fakturazio-erregistroak elektronikoki hornituz eramateko betebeharra, hau da, Informazioaren Berehalako Horniduran (SII) oinarritutako sistemaren bidez, eta eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuak eramanez ere betetzat joko dela. Bigarrenik, liburuotan jasotako informazioa

supuesto de reciprocidad, que será de aplicación cuando los y las contribuyentes hagan uso de un software que haya sido inscrito en un registro habilitado por la Diputación Foral de Álava o por la Diputación Foral de Gipuzkoa que sea equivalente al registro de software garante.

Tras las modificaciones pertinentes para la regulación del registro del software garante ya comentadas, el artículo 3 de este Decreto Foral se encarga de introducir otros cambios indispensables para, por una parte, ajustar el contenido del libro registro de operaciones económicas de los y las contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas a los nuevos requisitos cuyo nacimiento deriva de la implementación del sistema TicketBAI, y por otra, para regular el contenido y funcionamiento de dicho libro cuando sea un contribuyente del Impuesto sobre Sociedades el obligado a su llevanza y presentación.

En relación con los referidos libros registros de operaciones económicas, caben destacar algunas particularidades. En primer lugar, se establece que la obligación de llevanza de los libros registros correspondientes al Impuesto sobre el Valor Añadido mediante el suministro electrónico de los registros de facturación, es decir, a través del sistema basado en el Suministro Inmediato de Información (SII), se entenderá asimismo cumplida mediante la llevanza de los libros registros de operaciones

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

erregistratzeko epeei dagokienez, bi modalitate ezartzen dira. Alde batetik, eragiketen erregistroa zehazten duen arau orokor bat ezartzen da. Arau horren arabera, salbuespen batzuetan izan ezik, eragiketak egiten diren dataren eta apirilaren, uztailaren edo urriaren 25aren artean, edo data horren eta urtarrilaren 31ren artean erregistratu behar dira, egin diren hiruhilekoaren arabera. Bestalde, epe bereziak ezartzen dira, balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro-liburuak fakturazio-erregistroak elektronikoki hornituz eraman behar dituzten zergadunek aplikatu beharrekoak. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua osatzen duten idatzoharrak Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetu dituen Araudiaren 39 decies eta 39 octiesdecies artikuluetan jasotako epeetan aurkeztuko dituzte zergadun horiek. Gainera, eta eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuetan jasotako informazioa bidaltzeko ezarritako epe berrietan oinarrituta, adierazitako Araudiaren 46 bis artikuluan aipatzen zen informazio-aitorpena aurkezteko betebeharra kentzen da.

económicas. En segundo lugar, y en cuanto a los plazos dentro de los cuales debe registrarse la información contenida en los mismos, se establecen dos modalidades. Por un lado, se establece una regla general que determina el registro de las operaciones, salvo ciertas excepciones, entre la fecha de su realización y el día 25 de los meses de abril, julio u octubre, o entre dicha fecha y el día 31 de enero, en función del trimestre en que se hayan realizado. Por otro lado, se establecen plazos especiales que deberán ser de aplicación por aquellos contribuyentes que deban realizar la llevanza de sus libros registros del Impuesto sobre el Valor Añadido mediante el suministro electrónico de los registros de facturación, que realizarán el suministro de las anotaciones que componen el libro registro de operaciones económicas en los plazos recogidos en los artículos 39 decies y 39 octiesdecies del Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales. Además, y en base a los nuevos plazos establecidos para la remisión de la información contenida en los libros registros de operaciones económicas, se elimina la obligación de presentar la declaración informativa a la que hacía referencia el artículo 46 bis del mencionado Reglamento.

Foru-dekretu honen 5. artikuluak Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia aldatzen du (Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru

El artículo 5 de este Decreto Foral modifica el Reglamento de gestión de los tributos del Territorio Histórico de Bizkaia aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

Dekretuaren bidez onartutakoa), eta Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoien ondoriozko atzerapenak arautzen dituen 39. artikuluaren barruan 140 ereduaren epea ez aurkezteari buruzko kasua ezabatzen du; artikulu horretan bertan, h) idatz-zatia aldatzen du, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramateko eta bidaltzeko betebeharra ez betetzearen kasua sartzeko.

Azkenik, 6. artikuluan Fakturazio-betebeharrak arautzen dituen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Araudia aldatzen da, foru dekretu honen 4. artikuluaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoan zerga betebehar formalak arautzen dituen Araudian sartu diren aldaketetan jatorria duen erreferentzietako batean aldaketa bat sartzeko, hain zuzen ere..

Foru-dekretu honetan jasotako xedapen gehigarri bakarrean, balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazio-zirriborroei buruzko informazioa jasotzen da. Hala, adierazten da sozietateen gaineko zergari edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagozkion ekonomia-jardueren erregistro-liburuetan jasotako informaziotik abiatuta egingo direla autolikidazio-zirriborroak, dagokionaren arabera. Era berean, zergadunen eskura ofizioz

112/2009, de 21 de julio, eliminando, dentro de su artículo 39, en el que se regulan las dilaciones por causas no imputables a la Administración, el supuesto que se refería a la falta de presentación en plazo del modelo 140, y modificando en el mismo artículo su letra h), con el fin de incluir el supuesto de incumplimiento de la obligación de llevanza y remisión del libro registro de operaciones económicas a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

Por último, en el artículo 6 se modifica el Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 4/2013, de 22 de enero, con el fin de introducir un cambio en una de sus referencias cuyo origen se encuentra en las modificaciones que, a través del artículo 4 de este Decreto Foral, se han introducido en el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales en el Territorio Histórico de Bizkaia.

En cuanto a la Disposición Adicional Única contenida en este Decreto Foral, en ella se recoge la información referente a los borradores de autoliquidación del Impuesto sobre el Valor Añadido. Así, se estable que su confección se realizará partiendo de la información que conste en los libros registros de actividades económicas correspondientes al Impuesto sobre Sociedades o al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, según

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

noiz jarriko diren zehazten da, bai eta alderdi batek eskatuta eskatu ahal izango direla ere.

corresponda, determinándose las fechas en las que serán puestos a disposición de los y las contribuyentes de oficio y recogiéndose, asimismo, la posibilidad de que puedan ser solicitados a instancia de parte.

Azkenik, lehen xedapen iragankorrean, aldi baterako araubide bat arautzen da, zeinak aukera ematen baitu ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema informatiko bat borondatez 2020ko urriaren 1etik aurrera aplikatzeko; bigarren xedapen iragankorrean, berriz, ezartzen da erregistro-software bermatzailea 2020ko irailaren 14an funtzionatzen hasiko dela, hura borondatez aplikatu ahal izateko.

Finalmente, en la Disposición transitoria primera se regula un régimen transitorio que posibilita la aplicación de forma voluntaria del sistema informático garante de la integridad, conservación, trazabilidad e inviolabilidad de los registros que documenten las entregas de bienes y las prestaciones de servicios desde el 1 de octubre de 2020, y en la Disposición transitoria segunda, con el fin de facilitar la mencionada aplicación voluntaria, se determina la entrada en funcionamiento del registro de software garante el 14 de septiembre de 2020.

Adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea arau hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Se debe señalar que la tramitación de este Decreto Foral se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

Asimismo, se han observado los trámites previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2020ko irailaren 8ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral en su reunión de 8 de septiembre de 2020,

HAU XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia aldatzea; Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudian, zeina Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen:

Bat. Aldatu egiten da 52. artikuluko 2. apartatuko 1. puntua, eta honela geratzen da idatzita:

«1.a. Egiten duten jarduera ekonomikoaren etekin garbia kalkulatzeko zuzeneko zenbatespen erraztua aplikatzen duten zergadunek kobrantza eta ordainketen irizpidea hautatu ahal izango dute jardueraren sarreren eta gastuen aldi-egozketarako, baldin eta Zergari buruzko Foru Arauko 57.

Artículo 1. *Modificación del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 47/2014, de 8 de abril.*

Con efectos a partir del 1 de enero de 2022, se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 47/2014, de 8 de abril:

Uno. Se modifica el punto 1º del apartado 2 del artículo 52 que queda redactado en los siguientes términos:

"1.º Los y las contribuyentes que desarrollen actividades económicas a las que apliquen, para la determinación de su rendimiento neto, la modalidad simplificada del método de estimación directa, podrán optar para dichas actividades, por el criterio de cobros y pagos para efectuar la imputación temporal de los

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

artikuluko 2. idatz-zatiko c) letran ezarritako guztia betetzen bada.

ingresos y gastos siempre que se cumplan los requisitos mencionados en la letra c) del apartado 2 del artículo 57 de la Norma Foral del Impuesto.

Sarreren eta gastuen aldi-egozketarako kobrantza eta ordainketa irizpidea aplikatzea Zerga Administrazioak onetsitzat joko da abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalei buruzko Erregelamenduko 39 bis artikuluan aipatzen den eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuan dagozkion idatzoharrak egiteko unean adierazte hutsagatik. Gutxienez hiru urtean mantendu beharko da».

El criterio de cobros y pagos para efectuar la imputación temporal de los ingresos y gastos, se entenderá aprobado por la Administración tributaria por el solo hecho de así indicarlo en el momento de realizar las anotaciones correspondientes en el libro registro de operaciones económicas a que se refiere el artículo 39 bis del Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral 205/2008, de 22 diciembre, y deberá mantenerse durante un plazo mínimo de tres años."

Bi. 113 bis artikulua gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Dos. Se introduce un nuevo artículo 113 bis, que queda redactado en los siguientes términos:

«113 bis artikulua. *Ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema.*

"Artículo 113 bis. *Sistema garante de la trazabilidad e inviolabilidad de los registros que documenten entregas de bienes y prestaciones de servicios.*

1. Zergaren foru-arauko 113 bis artikuluaren 1. apartatuan aipatzen den sistema informatikoak bete behar dituen ezaugarri eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren foru-agindu bidez ezarriko dira.

1. Las características y especificaciones técnicas y funcionales que deberá cumplir el sistema informático al que se refiere el apartado 1 del artículo 113 bis de la Norma Foral del Impuesto se determinarán mediante Orden Foral del diputado o diputada foral de Hacienda y Finanzas.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

2. Zergadunek, Zergari buruzko Foru Arauaren 113 bis artikuluaren 1. atalean ezarritako betebeharrak betetzeko, software bermatzailearen erregistroan inskribatuta dagoen software bat erabili beharko dute. Erregistro hori Bizkaiko Lurralde Historikoaren zerga-betebehar formalak araupetu dituen Araudiaren 10. artikuluan aipatzen da (abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendu hori). Software hori erregistro horretan inskribatutako pertsona edo entitate batek garatutakoa izan behar du, eta pertsona edo entitate horrek erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu behar du.

Apartatu honetan aipatutako softwarea zergadunak berak garatzen duenean, zergaduna inskribatu beharko da erregistro horretan eta hark sinatu beharko du erantzukizunpeko adierazpena.

Erregistroan alta emateko, aldaketak egiteko edo baja emateko, erregelamendu horretan ezarritakoa bete beharko da.

3. Zergaren foru-arauko 113 bis artikuluko 2. apartatuko a) letran ezarritakoarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiak aplikazio informatiko bat jarriko du zergadunen esku, artikulu horretako 1. apartatuan ezarritako betebeharrak betetzen laguntzeko.

2. Para el cumplimiento de las obligaciones establecidas en el apartado 1 del artículo 113 bis de la Norma Foral del Impuesto, los y las contribuyentes deberán utilizar un software que se encuentre inscrito en el registro de software garante al que se refiere el artículo 10 del Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral 205/2008, de 22 de diciembre. Este software deberá haber sido desarrollado por una persona o entidad que se encuentre asimismo inscrita en dicho registro y que haya suscrito una declaración responsable.

En los casos en los que sea la propia persona contribuyente quien desarrolle el software al que hace referencia este apartado, será esta quien deberá inscribirse en el mencionado registro y suscribir la declaración responsable.

El alta, modificación, baja y exclusión del registro se realizará de conformidad con lo establecido en el citado Reglamento.

3. De acuerdo con lo previsto en la letra a) del apartado 2 del artículo 113 bis de la Norma Foral del Impuesto, la Diputación Foral de Bizkaia pondrá a disposición de los y las contribuyentes una aplicación informática que servirá para dar cumplimiento a las obligaciones establecidas en el apartado 1 del citado artículo.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

Aplikazio horren bidez, zergadunak gehienez ere 100 faktura edo frogagiri egin ahal izango ditu zergaldi bakoitzeko.

Mediante esta aplicación, la persona contribuyente podrá expedir un máximo de 100 facturas o justificantes por cada periodo impositivo.

4. Zergari buruzko Foru Arauaren 113 bis artikuluko 4. eta 5. zenbakietan xedatutakoaren arabera, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak baimena eman ahal izango du artikulu horretako 1. apartatuan aipatzen diren betebehar guztiak edo batzuk betetzetik salbuesteko, 4. apartatuko a) eta b) letretan eta 5. apartatuko a) letran aurreikusitakoez bestelako eragiketei dagokienez, baldin eta betebehar horiek betetzea ezinezko egiten duten ohiz kanpoko inguruabar teknikoak ikusten badira. Salbuestea aldi baterakoa izango da, eta eragiketa horiei buruzko betebeharrak bete ahal izateko behar diren egokitzapenak egiteko konpromisoaren baldintzapean egongo da. Salbuestearen ondorioak eten egingo dira hura hartzea eragin zuten ohiz kanpoko inguruabarrak desagertu direla egiaztatzen denean.

a) Por resolución que determine la exclusión del software del registro de software garante, cuando el incumplimiento no se haya subsanado en el curso del procedimiento.

Kanpoan uztea softwarea garatzen duen pertsonari edo entitateari jakinaraziko zaio, eta hura erabiltzen duten zergadunei jakinaraziko

La exclusión se notificará a la persona o entidad desarrolladora del software y se comunicará a los y las contribuyentes usuarias del mismo, las

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

zaie. Zergadun horiek ezin izango dute softwarea erabili kanpoan uztea jakinarazten zaienetik 3 hilabete igaro arte.

cuales no podrán usar el software afectado transcurridos 3 meses desde la comunicación de la exclusión.

b) Jarduketak artxibatzeagatik, prozedura izapidetzean agerian jartzen bada inguruabar hauetakoren bat ematen dela:

b) Por archivo de las actuaciones, cuando en la tramitación del procedimiento se ponga de manifiesto que concurre alguna de las siguientes circunstancias:

- Prozedura hastea eragin duten egitateak, inguruabarrak eta gainerako elementuak ez egotea.

- La inexistencia de los hechos, circunstancias y demás elementos que hubieran dado lugar al inicio del procedimiento.

- Prozeduran zehar, prozedura hastea eragin duten egitateak, inguruabarrak eta gainerako elementuak zuzendu izana. Kasu horretan, softwarea garatzen duen pertsonak edo entitateak aldez aurretik egiaztatu beharko dio zerga-administrazioari zuzendutako softwarea bere bezeroen artean banatu dela, eta zerga-administrazioak hori egiaztatzeko jarduerak egin ahal izango ditu.

- Que, en el curso del procedimiento, se hayan subsanado los hechos, circunstancias y demás elementos que hubieran dado lugar a su inicio. En este caso, la persona o entidad desarrolladora del software deberá acreditar previamente a la Administración tributaria la distribución entre sus clientes del software corregido y la Administración tributaria podrá realizar actuaciones de comprobación en este sentido.

6. Elkarrekikotasunari dagokionez, betetzat joko da Sozietateen gaineko Zergari eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru-arauen 122 bis eta 113 bis artikuluen 1. apartatuan (hurrenez hurren) xedatutakoa eta Ogasun eta Finantzetako diputatuaren foru-agindu bidez onartzen diren zehaztapen tekniko eta funtzionalak betetzen dituen software bat erabiltzeko betebeharra, zergadunek Arabako Foru Aldundiak edo Gipuzkoako Foru Aldundiak gaitutako

6. A título de reciprocidad, se entenderá cumplida la obligación de utilizar un software que cumple con lo dispuesto en el apartado 1 de los artículos 122 bis y 113 bis de las Normas Forales del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de la Personas Físicas, respectivamente, y con las especificaciones técnicas y funcionales que se aprueben por Orden Foral del diputado o diputada de Hacienda y Finanzas, cuando los y las contribuyentes hagan uso de un software que

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

erregistro batean inskribatutako software bat erabiltzen dutenean, baldin eta artikulu honetan aipatzen den software bermatzailearen erregistroaren baliokidea bada.

haya sido inscrito en un registro habilitado por la Diputación Foral de Álava o por la Diputación Foral de Gipuzkoa que sea equivalente al registro de software garante al que se refiere este artículo.

Hiru. 17. artikuluko 3. apartatuko s) eta t) letrak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

Tres. Se modifican las letras s) y t) del apartado 3 del artículo 17, que quedan redactadas en los siguientes términos:

«s) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egitea hautatu, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 62.6. zenbakian ezarritakoaren arabera.

"s) Optar por la llevanza de los libros registros del Impuesto sobre el Valor Añadido a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, de acuerdo con lo previsto en el artículo 62.6 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

t) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 62.6. zenbakian aipatutako pertsonen eta entitateen kasuan, eragiketen hartzaileek edo hirugarrenek faktura egiteko betebeharra betetzea hautatu dutela komunikatu, Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren 5. artikuluko 1. apartatuan zehaztutako baldintzetan».

t) Comunicar la opción por el cumplimiento de la obligación de expedir factura por los destinatarios de las operaciones o por terceros, en los términos del apartado 1 del artículo 5 del Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 4/2013, de 22 de enero, en el caso de las personas y entidades a que se refiere el artículo 62.6 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido."

Lau. Kendu egiten da 39. artikuluko 5. apartatua.

Cuatro. Se suprime el apartado 5 del artículo 39.

Bost. Berridatzi egiten da 39 bis artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

Cinco. Se da nueva redacción al artículo 39 bis, que queda redactado en los siguientes términos:

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

«39 bis artikulua. *Pertsona fisikoen eragiketa* ekonomikoen erregistro-liburua.

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren 114. artikuluaren lehen paragrafoan aipatzen diren pertsona fisikoek eragiketa ekonomikoen erregistro-liburu bat izan beharko dute nahitaez.

Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egin beharko da, osatzen duten erregistroak elektronikoki emanda.

Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua web-zerbitzuen bidez edo, hala badagokio, inprimaki elektronikoen bidez egingo da, Ogasun eta Finantzetako diputatuaren foru-agindu bidez onartzen diren zehaztapen tekniko eta funtzionalak betez.

2. Betebehar bera edukiko dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiko 114. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren jarduerak egiten dituzten errentak eratxikitzeko araubideko erakundeek ere, euren bazkideei, jaraunsleei, erkideei edo partaideei egin beharreko etekin-eratxikipena eragotzi gabe.

"Artículo 39 bis. *Libro registro de operaciones económicas de las personas físicas.*

1. Las personas físicas a las que se refiere el primer párrafo del artículo 114 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, estarán obligadas a la llevanza de un libro registro de operaciones económicas.

El libro registro de operaciones económicas deberá llevarse a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, mediante el suministro electrónico de los registros que lo componen.

El suministro electrónico de las anotaciones que componen el libro registro de operaciones económicas se realizará mediante servicios web o, en su caso, a través de los correspondientes formularios electrónicos, todo ello conforme a las especificaciones técnicas y funcionales que se aprueben por Orden Foral del diputado o diputada foral de Hacienda y Finanzas.

2. La misma obligación de llevanza de un libro registro de operaciones económicas corresponde a las entidades en régimen de atribución de rentas que desarrollen las actividades a las que se refiere el apartado 1 de artículo 114 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, sin perjuicio de la atribución de rendimientos que corresponda efectuar en relación con sus personas socias, herederas, comuneras o partícipes.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

3. Artikulu honetako aurreko apartatuko erregela bera aplikatuko zaie testamentu-ahalordea erabiltzearen zain egonik jarduera ekonomikoren bat egiten duten jarauntsiei ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiko 60. artikuluan etekinak eratxikitzeko ezarritako erregelak gorabehera.

3. Idéntica regla a la establecida en el apartado anterior se aplicará a las herencias que se hallen pendientes del ejercicio de un poder testatorio que desarrollen actividades económicas, con independencia de las reglas que sobre la atribución de sus rendimientos se establecen en el artículo 60 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

4. Aurreko apartatuetan aipatutako zergapekoren batek hainbat jarduera egiten baditu, liburu bat bakarrik arteztu beharko du eta jarduera bakoitzeko eragiketak ondo identifikatuta ezarri beharko ditu bertan.

4. Las obligadas y los obligados tributarios a que se refieren los apartados anteriores que desarrollen varias actividades económicas llevarán un único libro en el que se identificarán debidamente las operaciones de cada una de ellas.

5. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua araudi honetan ezarritakoarekin bat egin behar da; egiten diren eragiketa ekonomiko guztiak erregistratu behar dira, kapitulu hauetan sailkatuta:

5. El libro registro de operaciones económicas se deberá llevar según los términos dispuestos en este Reglamento, registrándose todas las operaciones económicas, que se clasificarán en los siguientes capítulos:

- Sarreren eta emandako fakturen kapitulua.

- Capítulo de ingresos y facturas emitidas.

- Gastuen eta jasotako fakturen kapitulua.

- Capítulo de gastos y facturas recibidas.

- Jarduerari lotutako ondasunen eta inbertsio-ondasunen kapitulua.

- Capítulo de bienes afectos y/o de inversión.

- Batasunaren barruko eragiketa jakin batzuen kapitulua.

- Capítulo de determinadas operaciones intracomunitarias.

- Horniduren eta aurrerakinen kapitulua.

- Capítulo de provisiones y suplidos.

- Tributuen arloan eragina duen bestelako informazioari buruzko kapitulua.

- Capítulo de otra información con trascendencia tributaria.

6. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua

6. La obligatoriedad de llevanza de los libros

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

eramanez gero, betetzat joko da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 62. artikuluan ezarritako erregistro-liburuak eraman beharra, enpresaburuek, profesionalek eta BEZaren beste subjektu pasibo batzuek daukatena.

registros previstos en el artículo 62 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, que incumbe a empresarios y profesionales y otros sujetos pasivos del Impuesto sobre el Valor Añadido, se entenderá cumplida con la llevanza del libro registro de operaciones económicas.

7. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiko 62. artikuluan ezarritako erregistro-liburuak fakturazio-erregistroak elektronikoki hornituz eramatea, artikulu horren 6. apartatuaren lehen bi paragrafoetan aipatzen diren zergapekoentzat ezarritako baldintzetan, artikulu honetan aipatzen den eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua eramanez beteko da.

7. La llevanza de los libros registros previstos en el artículo 62 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, mediante el suministro electrónico de los registros de facturación,–en los términos establecidos en el apartado 6 de dicho artículo para las obligadas y los obligados tributarios a los que se refiere en sus dos primeros párrafos, se entenderá asimismo cumplida mediante la llevanza del libro registro de operaciones económicas al que se refiere el presente artículo.

8. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiko 66.3 artikuluan aipatzen den betebeharra betetzat joko da, era berean, artikulu honetan aipatzen den eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua eramanez.

8. La obligación a la que se refiere el artículo 66.3 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido se entenderá cumplida, de igual manera, mediante la llevanza del libro registro de operaciones económicas al que se refiere el presente artículo.

9. Erregistroko idatzoharrak balioa eurotan adierazita egin beharko dira. Faktura bat euroa ez den kontu-unitate edo dibisa batean eman bada, dagokion bihurketa egin beharko da erregistro-liburuan jasotzeko».

9. Las anotaciones registrales deberán hacerse expresando el valor en euros. Cuando una factura se hubiese expedido en una unidad de cuenta o divisa distinta del euro, tendrá que efectuarse la correspondiente conversión para su reflejo en el libro registro."

Sei. Berridatzi egiten da 39 ter artikulua, eta

Seis. Se da nueva redacción al artículo 39 ter,

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

honela geratzen da idatzita:

«39 ter artikulua. *Sarreren eta emandako fakturen kapitulua.*

1. Aurreko artikuluan aipatutako zergapekoek eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuko sarreren eta emandako fakturen kapituluan erregistratu behar dituzte beren jardueraren garapenean faktura edo beste frogagiriren bat eragiten duten sarrera eta eragiketa guztiak.

2. Sarreren eta emandako fakturen kapituluan hiru azpikapitulu egongo dira:

a) Software bermatzailearekin emandako fakturen sarrerei buruzko azpikapitulua.

Azpikapitulu honetan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 113 bis artikuluko 1. apartatuko a) letran aipatutako sinadura elektronikoa duten fitxategi informatikoak erregistratuko dira bereziki.

b) Software bermatzailerik gabe emandako fakturen sarrerei buruzko azpikapitulua.

Azpikapitulu honetan erregistratuko dira emandako fakturei dagozkien eragiketak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta hura garatzen duen erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera foru-arau horren 113 bis artikuluko 1.

que queda redactado en los siguientes términos:

"Artículo 39 ter. *Capítulo de ingresos y facturas emitidas.*

1. Las obligadas y los obligados tributarios a que se refiere el artículo anterior deberán registrar, dentro del Capítulo de ingresos y facturas emitidas del libro registro de operaciones económicas, los ingresos y las demás operaciones por las que deban expedir factura u otros justificantes en el desarrollo de su actividad económica.

2. El Capítulo de ingresos y facturas emitidas estará compuesto de tres subcapítulos:

a) Subcapítulo de ingresos con facturas emitidas con software garante.

En este subcapítulo se registrarán, en particular, los ficheros informáticos firmados de forma electrónica a que se refiere la letra a) del apartado 1 del artículo 113 bis de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

b) Subcapítulo de ingresos con facturas emitidas sin software garante.

En este subcapítulo se registrarán las operaciones que se correspondan con facturas emitidas en aquellos supuestos en los que, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el reglamento que la desarrolla, se haya

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

apartatuko a) letran jasotako betebeharrak betetzetik salbuesten diren kasuetan.

establecido la exoneración del cumplimiento de las obligaciones recogidas en la letra a) del apartado 1 del artículo 113 bis de la citada Norma Foral.

c) Fakturarik gabeko sarreren azpisektorea.

c) Subcapítulo de ingresos sin factura.

Azpisektore honetan erregistratuko dira, bereziki, aldi baterako ezintasunagatiko hartukizunak, dirulaguntzak, finantza-sarrerak, aparteko diru-sarrerak eta faktura edo bestelako egiaztagiririk egin behar ez zaien bestelako diru-sarrerak.

En este subcapítulo se registrarán, en particular, las percepciones por incapacidad temporal, las subvenciones, los ingresos financieros, los ingresos extraordinarios y otros ingresos por los que no deba expedirse factura u otro justificante.

3. Oro har, kapitulu honetan erregistratu behar diren diru-sarrerak eta gainerako eragiketak bereizita erregistratu behar dira, eta elementu hauek eduki behar dituzte, gutxienez:

3. Con carácter general, los ingresos y las demás operaciones que deban registrarse en este capítulo se consignarán con la debida separación, con la inclusión al menos de los siguientes elementos:

- Eragiketaren data (egin den eguna).

- Fecha de realización de la operación.

- Eragiketaren deskripzioa

- Descripción de la operación.

- Eragiketari dagokion jarduera eta diru-sarreren zenbatekoa, etekina zehazteko. Sarrera jarduera bati baino gehiagori badagokie, bakoitzari zenbat egozten zaion argitu behar da.

- Actividad a la que corresponde la operación e importe del ingreso a efectos de la determinación de su rendimiento. En el supuesto de que el ingreso afecte a más de una actividad, deberá constar la parte imputable a cada una de ellas.

- Jasandako atxikipenaren zenbatekoa.

- Importe de la retención soportada.

4. Software bermatzailerik gabe emandako fakturen azpikapituluan, era berean, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 63. artikuluan emandako fakturen

4. En el Subcapítulo de ingresos con facturas emitidas sin software garante, asimismo, se incluirán todas las menciones exigidas por el artículo 63 del Reglamento del Impuesto sobre

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

erregistro-liburua egiteko eskatzen diren datu guztiak jaso behar dira. Ondorio horietarako, erregelamendu honen 39 bis artikuluan aipatzen diren zergapeko guztiek Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 63.3 artikuluko bigarren paragrafoan aipatzen den informazioa jaso beharko dute.

Zehazki, datu hauek jaso beharko dira: eragiketa dokumentatzen duen fakturaren edo frogagiriaren zenbakia (behar denean, seriea ere bai); agiria eman den eguna; eragiketak egin diren eguna, baldin eta ez bada aurrekoaren berdina; hartzailearen izen-abizenak, sozietate-izena edo deitura osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia; eragiketen zerga-oinarria (Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 78. eta 79. artikuluetan ezarritakoaren arabera kalkulatuta); eta, beharrezkoa denean, zerga-tasa eta zerga-kuota, eta jarduerak kutxa-irizpidearen araubide bereziaren arabera egin diren ala ez. Kutxa-irizpidearen araubide bereziaren menpeko eragiketen kasuan, eragiketaren kobrantza-egunak (eragiketa partez edo osorik kobratu bada) adieraziko dira, eta kasuan-kasuan dagokion zenbatekoa bereiz jasoko da; horrez gainera, banku-korrontearen zenbakia edo kobratzeko erabilitako bidea adieraziko da (eragiketa partez edo osorik kobratu den egiaztatzeko), bai eta faktura zalantza barik identifikatzeko behar diren datuak ere.

el Valor Añadido para la confección del libro registro de facturas expedidas. A estos efectos, todos los obligados tributarios a los que se refiere el artículo 39 bis de este Reglamento deberán incluir la información a la que alude el segundo párrafo del artículo 63.3 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

En concreto, se consignarán el número de la factura o justificante en que se documente la operación y, en su caso, la serie, la fecha de expedición, la fecha de realización de las operaciones, en caso de que sea distinta de la anterior, el nombre y apellidos, razón social o denominación completa y número de identificación fiscal del destinatario o de la destinataria, la base imponible de las operaciones, determinada conforme a los artículos 78 y 79 de la Norma Foral del Impuesto sobre el Valor Añadido y, en su caso, el tipo impositivo y la cuota tributaria, así como si la operación se ha efectuado conforme al régimen especial del criterio de caja. Para las operaciones acogidas al régimen especial del criterio de caja, deberán incluir las fechas del cobro, parcial o total, de la operación, con indicación por separado del importe correspondiente, en su caso, así como indicación de la cuenta bancaria o del medio de cobro utilizado, que pueda acreditar el cobro parcial o total de la operación y los datos que permitan identificar de forma inequívoca la

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

factura a que se refiere.

Azpikapitulu honetan, Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudian xedatutakoaren arabera hartzailea identifikatzea nahitaezkoa ez den kasuetan, eta, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako, dokumentatutako eragiketen sortzapena hilabete natural berean gertatu bada, aurreko 3. apartatuan adierazten den fakturen banakako idatzoharraren ordez, idazpen laburtuak egin ahal izango dira. Data, seriea, idatzitako dokumentuen hasierako eta amaierako zenbakiak, zerga-tasa bakoitzari dagokion zerga-oinarri globala, zerga-tasak eta fakturen kuota globala, modu korrelatiboan zenbakituta eta data berean emanda, eta eragiketak kutxa-irizpidearen araubide bereziaren arabera egin diren ala ez. Eragiketak kutxa-irizpidearen araubide bereziaren arabera egin badira, eragiketaren kobrantza-egunak (eragiketa partez edo osorik kobratu bada) adieraziko dira, eta kasuan-kasuan dagokion zenbatekoa bereiz jasoko da; horrez gainera, banku-korrontearen zenbakia edo kobratzeko erabilitako bidea adieraziko da (eragiketa partez edo osorik kobratu den egiaztatzeko), bai eta kobrantzari dagokion idazpen laburtua zalantza barik identifikatzeko behar diren datuak ere.

En este subcapítulo, en aquellos supuestos en los que no sea preceptiva la identificación del destinatario o de la destinataria, conforme a lo dispuesto en el Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación, y siempre que el devengo de las operaciones documentadas se haya producido dentro de un mismo mes natural a efectos del Impuesto sobre el Valor Añadido, la anotación individualizada de las facturas a que se refiere el apartado 3 anterior se podrá sustituir por la de asientos resúmenes en los que se harán constar la fecha, serie, números inicial y final de los documentos anotados, base imponible global correspondiente a cada tipo impositivo, los tipos impositivos y la cuota global de facturas numeradas correlativamente y expedidas en la misma fecha y si las operaciones se han efectuado conforme al régimen especial del criterio de caja. Si las operaciones se han efectuado conforme al régimen especial del criterio de caja deberán incluir las fechas del cobro, parcial o total, de la operación, con indicación por separado del importe correspondiente, en su caso, así como indicación de la cuenta bancaria o del medio de cobro utilizado, que pueda acreditar el cobro parcial o total de la operación y los datos que permitan identificar de forma inequívoca el asiento resumen al que se refiere.

Gainera, Fakturazio-betebeharrei buruzko

Asimismo, deberán anotarse las facturas

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

Araudian aipatzen diren faktura zuzentzaileak ere erregistratu behar dira: aurreko 3. zenbakian aipatutako datuak ez ezik zuzendutako fakturen identifikazio-datuak ere zehaztu behar dira.

5. Jarduera ekonomiko bat egiten duen zergapeko batek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztua aplikatzen badu jardueraren etekin garbia zehazteko eta, jarduera horretarako, kobrantzen eta ordainketen irizpidea hautatu badu, kobrantza bakoitzaren datu hauek erregistratu behar ditu hura gertatzen den ekitaldian: zenbatekoa, data, eragiketaren erreferentzia, eta —behar denean— fakturaren zenbakia.

Zazpi. Berridatzi egiten da 39 quater artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«39 quater artikulua. *Gastuen eta jasotako fakturen kapitulua.*

1. Araudi honetako 39 bis artikuluan aipatutako zergapekoek eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuko gastuen eta jasotako fakturen kapituluan erregistratu behar dituzte euren jarduera ekonomikoan egiten dituzten gastuak eta faktura, aduana-agiria edo beste frogagiriren bat jasotzea eragiten duten eragiketa guztiak.

rectificativas a que se refiere el Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación, consignando los datos citados en el apartado 3 anterior y, en su caso, los identificativos de las facturas rectificadas.

5. Las obligadas y los obligados tributarios que desarrollen actividades económicas a las que apliquen para la determinación de su rendimiento neto la modalidad simplificada del método de estimación directa del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, y hayan optado para dichas actividades, por el criterio de cobros y pagos deberán, además, registrar en el ejercicio de cobro el importe, la fecha, la referencia a la operación de la que procede y, en su caso, el número de factura."

Siete. Se da nueva redacción al artículo 39 quáter, que queda redactado en los siguientes términos:

"Artículo 39 *quáter. Capítulo de gastos y facturas recibidas.*

1. Las obligadas y los obligados tributarios a los que se refiere el artículo 39 bis de este Reglamento deberán registrar, dentro del Capítulo de gastos y facturas recibidas del libro registro de operaciones económicas, los gastos y las demás operaciones por las que deban recibir facturas, documentos de aduanas u otros justificantes en el desarrollo de su actividad económica.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

2. Gastuen eta jasotako fakturen kapituluan azpikapitulu bi egongo dira:

a) Fakturadun gastuen azpikapitulua.

Azpikapitulu honetan, faktura, aduana-agiri edo antzeko egiaztagiri bidez egiaztatu behar diren gastuak eta gainerako eragiketak erregistratuko dira.

b) Fakturarik gabeko gastuen azpikapitulua.

Azpikapitulu honetan erregistratuko dira, bereziki, pertsonal-gastuak, amortizazioak, hornidurak eta fakturaren edo antzeko beste egiaztagiri baten bidez egiaztatu behar ez diren bestelako gastuak.

3. Oro har, faktura, aduana-agiri edo antzeko egiaztagiri bidez egiaztatu behar diren gastuak eta gainerako eragiketak behar bezala bereizita jasoko dira, gutxienez elementu hauek sartuta:

- Eragiketaren deskribapena, gastuaren kontzeptuari erreferentzia eginez, Ogasun eta Finantzetako diputatuaren foru-agindu bidez onartzen den kontzeptuari erreferentzia eginez.

- Gastuaren zenbatekoa, jarduera ekonomikoaren etekina zehazteko.

- Eragiketa adierazi behar da, eta, hala badagokio, eragiketarekin lotuta dagoen ondasuna.

2. El Capítulo de gastos y facturas recibidas estará compuesto de dos subcapítulos:

a) Subcapítulo de gastos con factura.

En este subcapítulo se registrarán los gastos y las demás operaciones que deban acreditarse mediante factura, documento de aduanas u otros justificantes de carácter análogo.

b) Subcapítulo de gastos sin factura.

En este subcapítulo se registrarán, en particular, los gastos de personal, amortizaciones, provisiones y otros gastos que no deban acreditarse mediante factura u otro justificante de carácter análogo.

3. Con carácter general, los gastos y las demás operaciones que deban acreditarse mediante factura, documento de aduanas u otros justificantes de carácter análogo se consignarán con la debida separación, con la inclusión al menos de los siguientes elementos:

- Descripción de la operación, con referencia al concepto del gasto de acuerdo con la lista de conceptos que se apruebe por Orden Foral del diputado o diputada foral de Hacienda y Finanzas.

- Importe del gasto a efectos de la determinación del rendimiento de la actividad.

- Indicación de la actividad y, en su caso, del bien con los que se corresponde la operación.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

- Gastua jarduera edo ondasun bati baino gehiagori badagokio, bakoitzari zenbat egozten zaion argitu behar da.

- Eragiketaren data (egin den eguna), behar izanez gero.

Gainera, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 64. artikuluan (jasotako fakturen erregistro-liburuari buruzkoa) eskatzen diren datu guztiak aipatu behar dira. Ondorio horietarako, erregelamendu honen 39. artikuluan aipatzen diren zergapeko guztiek Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 64.4 artikuluaren laugarren paragrafoan aipatzen den informazioa jaso beharko dute.

Hauexek dira datuok: eragiketa dokumentatzen duen fakturaren edo frogagiriaren zenbakia (behar denean, seriea ere bai); faktura jaso den eguna; eragiketa egin den eguna (faktura eman den egunean egin ez bada, eta hala ezarrita badago fakturan); faktura eman behar izan duenaren izen-deiturak, sozietate-izena edo deitura osoa, eta beraren identifikazio fiskaleko zenbakia; zerga-oinarria (Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 78. eta 79. artikuluetan ezarritakoaren arabera kalkulatuta); eta, beharrezkoa denean, zerga-tasa eta zerga-kuota, eta jarduerak kutxa-irizpidearen araubide bereziaren arabera egin diren ala ez. Kutxa-irizpidearen araubide bereziaren menpeko eragiketen kasuan eta

- En el supuesto de que el gasto afecte a más de una actividad o a más de un bien, deberá constar la parte imputable a cada uno de ellos.

- En su caso, fecha de realización de la operación.

Asimismo, se incluirán todas las menciones exigidas por el artículo 64 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido para la confección del libro registro de facturas recibidas. A estos efectos, todas las y los obligados tributarios a los que se refiere el artículo 39 bis de este Reglamento deberán incluir la información establecida en el cuarto párrafo del artículo 64.4 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

En concreto se anotarán el número de la factura o justificante en que se documente la operación y, en su caso, la serie, la fecha de recepción, la fecha de realización de las operaciones, en caso de que sea distinta de la anterior y así conste en el citado documento, el nombre y apellidos, razón social o denominación completa y número de identificación fiscal del obligado u obligada a su expedición, la base imponible, determinada conforme a los artículos 78 y 79 de la Norma Foral del Impuesto sobre el Valor Añadido, y, en su caso, el tipo impositivo y la cuota tributaria, así como si la operación se encuentra afectada por el régimen especial del criterio de caja. Para las operaciones acogidas al régimen especial del

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

araubide horren menpekoak ez baina araubide horren menpeko eragiketen hartzaileak diren subjektu pasiboen kasuan, datu hauek jaso beharko dira: eragiketaren ordainketa-eguna (ordainketa zati batena izan zein osoa izan), kasuan-kasuan dagokion zenbatekoa bereiz adierazita, eta eragiketaren ordainketa partziala edo osoa egiteko erabilitako bidea, bai eta faktura zalantza barik identifikatzeko behar diren datuak ere.

4. Jarduera ekonomiko bat egiten duen zergapeko batek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztua aplikatzen badu jardueraren etekin garbia zehazteko eta, jarduera horretarako, kobrantzen eta ordainketen irizpidea hautatu badu, ordainketa bakoitzaren datu hauek erregistratu behar ditu hura gertatzen den ekitaldian: eragiketaren zenbatekoa, data eta erreferentzia, eta –behar denean– fakturaren zenbakia.

5. Data berean jasotako faktura guztien idazpen laburtu globala egin daiteke, honako hauek adierazita: hornitzaile berak bidalitako fakturen lehen eta azken zenbakiak, hornitzaileak emandakoak; zerga-oinarrien guztirako batura eta guztirako zerga-kuota eta, horrez gainera, jarduerak kutxa-irizpidearen araubide bereziaren menpe dauden ala ez, baldin eta eragiketen guztirako zenbatekoa (BEZa sartu

criterio de caja, así como en el caso de sujetos pasivos no acogidos al régimen especial del criterio de caja pero que sean destinatarios de las operaciones afectadas por el mismo, deberán incluirse las fechas del pago, parcial o total, de la operación, con indicación por separado del importe correspondiente, en su caso, así como indicación del medio de pago por el que se satisface el importe parcial o total de la operación y los datos que permitan identificar de forma inequívoca la factura a que se refiere.

4. Las obligadas y los obligados tributarios que desarrollen actividades económicas a las que apliquen para la determinación de su rendimiento neto la modalidad simplificada del método de estimación directa del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, y hayan optado para dichas actividades, por el criterio de cobros y pagos deberán, además, registrar en el ejercicio de pago el importe, la fecha y referencia a la operación de la que procede y, en su caso, el número de factura.

5. Podrá hacerse un asiento resumen global de las facturas recibidas en una misma fecha, en el que se harán constar la serie, los números inicial y final de las facturas recibidas asignados por el destinatario o la destinataria, siempre que procedan de un único proveedor, la suma global de la base imponible correspondiente a cada tipo impositivo, la cuota impositiva global y si las operaciones se encuentran afectadas por

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

gabe) 6.000 euro baino gehiago ez bada eta faktura bakoitzean dokumentatutako eragiketen zenbatekoa 500 euro baino gehiago ez bada (BEZa sartu gabe). Eragiketak kutxa-irizpidearen araubide bereziaren arabera egin badira, eragiketaren ordainketa-egunak (eragiketa partez edo osorik ordaindu bada) adieraziko dira, eta kasuan-kasuan dagokion zenbatekoa bereiz jasoko da; horrez gainera, eragiketaren ordainketa partziala edo osoa egiteko erabilitako bidea, bai eta idazpen laburtua zalantza barik identifikatzeko behar diren datuak ere.

el régimen especial del criterio de caja, siempre que el importe total conjunto de las operaciones, Impuesto sobre el Valor Añadido no incluido, no exceda de 6.000 euros, y que el importe de las operaciones documentadas en cada una de ellas no supere 500 euros, Impuesto sobre el Valor Añadido no incluido. Si las operaciones se encuentran afectadas por el régimen especial del criterio de caja, deberán incluir las fechas del pago, parcial o total, de la operación, con indicación por separado del importe correspondiente, en su caso, así como indicación del medio de pago por el que se satisface el importe parcial o total de la operación y los datos que permitan identificar de forma inequívoca el asiento resumen al que se refiere.

6. Gainera, Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudian aipatzen diren faktura zuzentzaileak ere erregistratu behar dira: 3. apartatuan aipatutako datuak ez ezik zuzendutako fakturen identifikazio-datuak ere zehaztu behar dira.

6. Asimismo, deberán anotarse las facturas rectificativas a que se refiere el Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación, consignando los datos citados en el apartado 3, y en su caso, los identificativos de las facturas rectificadas.

7. Aurreko 4., 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako idatzoharrek aukera eman beharko dute jarduera bakoitzari, ondasun bakoitzari eta aplikatzekoak diren gastu-kontzeptuei dagokien zatia zehazteko, Ogasun eta Finantzetako diputatuaren foru-agindu bidez onartzen den kontzeptuen zerrendaren arabera.

7. Las anotaciones previstas en los apartados 4, 5 y 6 anteriores deberán permitir determinar la parte atribuida a cada actividad, a cada bien y a los distintos conceptos de gasto aplicable de acuerdo con la lista de conceptos que se apruebe por Orden Foral del diputado o diputada de Hacienda y Finanzas.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

8. Gainera, fakturadun gastuen azpikapituluan erregistratu behar dira enpresaburuek edo profesionalek Europar Batasunaren barruan egiten dituzten Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako ondasun-eskuraketek eragiten dituzten ondasun-emateen fakturak.

Halaber, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 97. artikuluaren Bat ataleko 4. zenbakian aipatzen diren fakturen edo kontabilitateko frogagirien idatzoharrak ere egin behar dira.

9. Aurreko apartatuko lehenengo paragrafoan aipatzen diren fakturen kasuan, dokumentatutako ondasun-emateei dagozkien Batasunaren barruko ondasun-eskuraketen zerga-kuotak kalkulatu beharko dira, eta faktura horien idatzoharrean jaso.

Halaber, aurreko apartatuko bigarren paragrafoan aipatzen diren fakturen edo kontabilitateko frogagirien kasuan, agiri horietan dokumentaturiko ondasun-emateen edo zerbitzu-prestazioen zerga-kuotak kalkulatu beharko dira, eta faktura edo kontabilitateko frogagiri horiei buruzko idatzoharretan jaso ».

8. Asimismo, dentro del subcapítulo de gastos con facturas, se anotarán las facturas correspondientes a las entregas que den lugar a las adquisiciones intracomunitarias de bienes sujetas al Impuesto sobre el Valor Añadido efectuadas por los empresarios o profesionales.

Igualmente, deberán anotarse en el mencionado subcapítulo las facturas o, en su caso, los justificantes contables a que se refiere el número 4º del apartado Uno del artículo 97 de la Norma Foral del Impuesto sobre el Valor Añadido.

9. En el caso de las facturas a que se refiere el párrafo primero del apartado anterior, las cuotas tributarias correspondientes a las adquisiciones intracomunitarias de bienes a que den lugar las entregas en ellas documentadas habrán de calcularse y consignarse en la anotación relativa a dichas facturas.

Igualmente, en el caso de las facturas o, en su caso, de los justificantes contables a que se refiere el párrafo segundo del apartado anterior, las cuotas tributarias correspondientes a las entregas de bienes o prestaciones de servicios en ellas documentadas, habrán de calcularse y consignarse en la anotación relativa a dichas facturas o justificantes contables."

Zortzi. Aldatu egiten da 39 quinquies artikulua,

Ocho. Se modifica el artículo 39 quinquies, que

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

eta honela geratzen da idatzita:

«39 quinquies artikulua. *Jarduerari lotutako ondasunen eta inbertsio-ondasunen kapitulua*.

1. Erregelamendu honetako 39 bis artikuluan aipatzen diren zergapekoek jarduerari lotutako ondasunak edo inbertsio-ondasunak erregistratu beharko dituzte artikulu honetan adierazten den kapituluaren barruan. Kapitulu horrek Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 65. artikuluan aipatzen den informazioa jaso beharko du.

Eragiketak erregistratzeko, honako hauek izango dira jarduerari lotutako ondasunak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudian ezarritako baldintzak eta mugak kontuan hartuta: jarduera ekonomikoa egiten den ondasun eta higiezinak eta etekina lortzeko beharrezkoa den beste edozein ondare-elementu, ondasunok zergadunarenak izan, alokatuak izan, edo beste titulu edo eskubide bat dela medio jardueran erabiltzen badira ere.

2. Jarduerari lotutako ondasunen edo inbertsio-ondasunen kapituluan hauek erregistratu behar dira, behar bezala banakatuta: 39 bis artikuluan aipatutako zergapekoek egiten duten jarduerari lotutako ibilgetu materialeko, ibilgetu ukiezineko eta higiezinetako inbertsioetako elementuak. Ondasun bakoitzeko datu hauek adierazi behar

queda redactado en los siguientes términos:

"Artículo 39 quinquies. *Capítulo de bienes afectos y/o de inversión*.

1. Las obligadas y los obligados tributarios a que se refiere el artículo 39 bis de este Reglamento deberán registrar los bienes afectos y/o de inversión dentro del capítulo a que se refiere este artículo, que deberá contener la información a la que alude el artículo 65 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Nolanahi ere, eragiketa horiei dagokien Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazioa eta ordainketa egin aurretik erregistratu beharko dira eragiketak.

En todo caso, las operaciones deberán registrarse antes de que se realice la liquidación y pago del Impuesto sobre el Valor Añadido relativo a las mismas.

2. Hala ere, zergapekoak egindako eragiketak, horien gainean fakturarik ematen ez bada, egiten direnetik zazpi eguneko epean idatzi beharko dira, betiere epe hori aurreko apartatuan adierazitakoa baino txikiagoa bada.

2. No obstante, las operaciones efectuadas por el obligado tributario respecto de las cuales no se expidan facturas deberán anotarse en el plazo de siete días a partir del momento de la realización de las operaciones, siempre que este plazo sea menor que el señalado en el apartado anterior.

3. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 69. artikuluko 4. apartatuan aipatzen diren eragiketak zazpi eguneko epean idatzi beharko dira, aipatzen diren ondasunak igortzen edo garraiatzen hasten direnetik aurrera.

3. Las operaciones a que se refiere el apartado 4 del artículo 69 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, deberán anotarse en el plazo de siete días a partir del momento de inicio de la expedición o transporte de los bienes a que se refieren.

4. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuan, tributuen arloan eragina duten beste eragiketa batzuen kapituluaren barruan erregistratu behar diren eragiketak urtero erregistratu beharko dira, dagokien ekitaldiaren hurrengo urtarrilean, eragiketa horiek egin direneko pertsona edo entitate bakoitzaren arabera multzokaturik, araudi honen 46. artikuluan aurreikusitako aldi baterako egozpen-irizpideen arabera».

4. Las operaciones que hayan de ser objeto de registro dentro del Capítulo de otras operaciones con trascendencia tributaria del libro registro de operaciones económicas, deberán registrarse con carácter anual, durante el mes de enero siguiente al ejercicio al que se refieran, de forma agrupada respecto de cada una de las personas o entidades con las que se hubieran efectuado las citados operaciones, conforme a los criterios de imputación temporal previstos en el artículo 46 de este Reglamento."

Hogeita bat. Artikulu berri bat gehitzen da, 39

Veintiuno. Se introduce un nuevo artículo 39

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

octiesdecies, eta honela geratzen da idatzita:

«39 octiesdecies artikulua. *Erregistroan idatzoharrak egiteko epeak. Arau berezia.*

1. Araudi honen 39 undecies artikuluko 4. zenbakian aipatzen diren zergapekoen kasuan, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuaren lehenengo 4 kapituluetako idatzoharrak epe hauetan egin behar dira:

a) Egindako fakturei buruzko informazioa faktura egin eta lau egun naturaleko epearen barruan hornitu behar da, hartzaileak edo hirugarren batek egindako fakturak direnean izan ezik; izan ere, azken kasu horretan, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 164. artikuluko Bi apartatuan ezarritakoarekin bat, zortzi egun naturaleko epea egongo da informazio hori hornitzeko. Kasu batean zein bestean, erregistratu beharreko eragiketari dagokion zergaren sortzapena gertatu aurreko hileko 16a baino lehen hornitu behar da informazio hori. Hala ere, zergari loturik ez dauden, baina faktura egitea behar duten eragiketak direnean, azken epe hori zehazteko, eragiketa egin zen data hartuko da erreferentziatzat.

b) Jasotako fakturei buruzko informazioa lau egun naturaleko epean hornitu behar da,

octiesdecies con la siguiente redacción:

"Artículo 39 octiesdecies. *Plazos para las anotaciones registrales. Regla especial.*

1. En el caso de los obligados tributarios a que se refiere el apartado 4 del artículo 39 undecies de este Reglamento, el suministro de las anotaciones que componen los 4 primeros capítulos del libro registro de operaciones económicas deberá realizarse en los siguientes plazos:

a) La información correspondiente a las facturas expedidas, en el plazo de cuatro días naturales desde la expedición de la factura, salvo que se trate de facturas expedidas por el destinatario o por un tercero, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado Dos del artículo 164 de la Norma Foral 7/1994, de 9 de noviembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, en cuyo caso, dicho plazo será de ocho días naturales. En ambos supuestos el suministro deberá realizarse antes del día 16 del mes siguiente a aquel en que se hubiera producido el devengo del Impuesto sobre el Valor Añadido correspondiente a la operación que debe registrarse. No obstante, tratándose de operaciones no sujetas al Impuesto por las que se hubiera debido expedir factura, este último plazo se determinará con referencia a la fecha en que se hubiera realizado la operación.

b) La información correspondiente a las facturas recibidas, en un plazo de cuatro días

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

faktura kontabilitatean erregistratzen den egunetik zenbatuta, eta, edozelan ere, eragiketei dagokien Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazio-aldiaren osteko hileko 16a baino lehen.

naturales desde la fecha en que se produzca el registro contable de la factura y, en todo caso, antes del día 16 del mes siguiente al periodo de liquidación correspondiente al Impuesto sobre el Valor Añadido en que se hayan incluido las operaciones correspondientes.

Inportazio-eragiketen kasuan, aduanan likidatutako kuota jasotzen duen dokumentua kontabilitatean erregistratzen den egunetik zenbatuko dira lau egun natural horiek, eta, edozelan ere, eragiketoi dagokien Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazio-aldiaren hurrengo hilearen 16a baino lehen eman behar da informazio hori.

En el caso de operaciones de importación, los cuatro días naturales se deberán computar desde que se produzca el registro contable del documento en el que conste la cuota liquidada por las aduanas y en todo caso antes del día 16 del mes siguiente al final del periodo de liquidación correspondiente al Impuesto sobre el Valor Añadido al que se refiera la declaración en la que se hayan incluido.

c) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 66. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren eragiketei buruzko informazioa lau egun naturaleko epean eman behar da, bidalketa edo garraioa hasten den unetik zenbatuta, edo, bestela, kasuan kasuko eragiketako ondasunak jasotzen diren unetik zenbatuta.

c) La información de las operaciones a que se refiere el apartado 1 del artículo 66 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, en un plazo de cuatro días naturales, desde el momento de inicio de la expedición o transporte, o en su caso, desde el momento de la recepción de los bienes a que se refieren.

d) Egindako eta jasotako faktura zuzentzaileei buruzko informazioa lau egun naturaleko epean eman behar da, faktura edo fakturaren kontabilitateko erregistroa, hurrenez hurren, egin zen egunetik zenbatuta.

d) La información correspondiente a las facturas rectificativas expedidas y recibidas, en el plazo de cuatro días naturales desde la fecha en que se produzca la expedición o el registro contable de la factura, respectivamente.

Hala ere, zuzenketaren ondorioz, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 114.Bi.1 artikuluan

No obstante, en el caso de que la rectificación determine un incremento del importe de las cuotas inicialmente deducidas de acuerdo con

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

xedatutakoaren arabera hasieran kendutako kuoten zenbatekoa gehitzen bada, aurreko b) letran jasotako fakturentzat ezarritakoa izango da epea.

lo dispuesto en el artículo 114. Dos.1 de la Norma Foral 7/1994, de 9 de noviembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, el plazo será el previsto en la letra b) anterior para las facturas recibidas.

e) Inbertsio-ondasunen kapituluari dagokion informazioa, urte natural bakoitzeko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazioaren azken aldiari dagokion aurkezpen-epearen barruan.

e) La información correspondiente al Capítulo de bienes de inversión, dentro del plazo de presentación correspondiente al último periodo de liquidación del Impuesto sobre el Valor Añadido de cada año natural.

Hala ere, zergapekoek enpresaburuen, profesionalen eta atxikitzaileen zentsuan baja hartzen badute, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren azken aitorpen-likidazioari dagokion aurkezpen-epearen barruan eman beharko dituzte erregistro guztiak, araudi honen 68. artikuluan aurreikusitako ofiziozko baja kasuetan izan ezik; kasu horretan, aurkezteko epea urte natural bakoitzeko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazioaren azken aldiari dagokiona izango da.

No obstante, si los obligados tributarios causaran baja en el Censo de Empresarios, Profesionales y Retenedores, deberán suministrar la totalidad de los registros dentro del plazo de presentación correspondiente a la última declaración-liquidación del Impuesto sobre el Valor Añadido que tengan la obligación de presentar, salvo en los supuestos de baja de oficio previstos en el artículo 68 de este Reglamento, en los que el plazo de presentación será el correspondiente al último periodo de liquidación del Impuesto sobre el Valor Añadido de cada año natural.

f) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 9.1.2º.B) artikuluan aipatzen den itzultzeko dokumentu elektronikoari buruzko informazioa bidaiariak jasandako kuotaren itzulketari dagokion zergaren zuzenketa sartzen den likidazio-aldiaren osteko hileko 16a baino lehen eman behar da.

f) La información correspondiente al documento electrónico de reembolso al que se refiere el artículo 9.1.2º.B) del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, antes del día 16 del mes siguiente al período de liquidación en que se incluya la rectificación del Impuesto correspondiente a la devolución de la cuota soportada por el viajero.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

Aurreko a), b), c) eta d) letretan aipatzen diren lau edo zortzi egun naturaleko epeak zenbatzeko ez dira aintzat hartuko egun baliogabeak.

2. Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketei buruz hornitu beharreko informazioaren kasuan, aurreko paragrafoetan adierazitako epeetan hornitu beharko da informazio hori, eragiketoi araubide berezi hori aplikatu beharko ez balitzaie bezala, baina kontuan hartuta eragiketa horiei lotutako kobrantza edo ordainketa osoak edo partzialak egiten direnean ere zenbait datu hornitu beharko direla.

Kobrantza eta ordainketei buruzko informazioa lau egun naturaleko epean hornituko da, kobrantza edo ordainketa egin zenetik zenbatuta.

3. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 70. artikuluan aipatzen diren erregistroko zuzenketan kasuan, zuzenketa horiek jasotzen dituzten fakturazio-erregistroak hornitu behar dira, hain zuzen, zergapekoa egin duen akatsaz ohartzen den Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazioaren aldia amaitu osteko lehenengo hileko 16a baino lehen.

A efectos del cómputo del plazo de cuatro u ocho días naturales a que se refieren las letras a), b), c) y d) anteriores, se excluirán los días inhábiles.

2. El suministro de la información correspondiente a las operaciones a las que sea de aplicación el régimen especial del criterio de caja deberá realizarse en los plazos establecidos en los apartados anteriores, como si a dichas operaciones no les hubiera sido de aplicación dicho régimen especial, sin perjuicio de los datos que deban suministrarse en el momento en que se efectúen los cobros o pagos totales o parciales de las operaciones.

La información correspondiente a los cobros y pagos se realizará en el plazo de cuatro días naturales desde el cobro o pago correspondiente.

3. En el caso de rectificaciones registrales a que se refiere el artículo 70 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, el suministro de los registros de facturación que recojan tales rectificaciones deberá realizarse antes del día 16 del mes siguiente al final del periodo de liquidación correspondiente al Impuesto sobre el Valor Añadido en el que el obligado tributario tenga constancia del error en que haya incurrido.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

4. Aurreko apartatuetan aurreikusten ez diren eragiketak aurreko artikuluan ezarritako epe orokorretan jasoko dira».

4. Las operaciones no contempladas en los apartados anteriores se consignarán en los plazos generales establecidos en el artículo anterior."

Hogeita bi. Artikulu berri bat sartzen da, 39 novodecies, eta honela geratzen da idatzita:

Veintidós. Se introduce un nuevo artículo 39 novodecies *con* la siguiente redacción:

«39 novodecies artikulua. *Kontabilitate-mugimenduen kapitulua.*

"Artículo 39 novodecies. *Capítulo de movimientos contables.*

1. Erregelamendu honetako 39 undecies artikuluan aipaturiko zergapekoek hurrengo apartatuan deskribatzen den informazioa jasotzen duen fitxategi informatikoa aurkeztu beharko dute, Sozietateen gaineko Zergaren zergaldia itxi ondoko hurrengo lau hilabeteetan. Fitxategi hori Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputatuaren foru-agindu bidez ezarritako eran eta baldintzetan eta han ezarritako zehaztapen teknikoak eta funtzionalak betez aurkeztu beharko da.

1. Los obligados tributarios a los que se refiere el artículo 39 undecies de este Reglamento deberán presentar, dentro de los cuatro meses posteriores al cierre del periodo impositivo del Impuesto sobre Sociedades, un fichero informático que contenga la información que se describe en el apartado siguiente, en la forma, condiciones y con las especificaciones técnicas y funcionales que se establezcan mediante Orden Foral del diputado o la diputada foral de Hacienda y Finanzas.

2. Aurreko apartatuan aipatutako fitxategian informazio hau jaso beharko da:

2. El fichero al que se refiere el apartado anterior contendrá la siguiente información:

- Fitxategiak aipatzen duen ekitaldia, haren hasiera- eta itxiera-datak adierazita.

- El ejercicio al que se refiere el fichero, con indicación de las fechas de inicio y cierre del mismo.

- Zergapekoak aplikatzen duen kontabilitate-eredua.

- El modelo contable que aplica el obligado tributario.

- Zergapekoak aurkezten dituen kontabilitateko egoera-orriak (normala, laburtua edo ETEak)

- El tipo de estados de cuentas que presenta el obligado tributario (normal, abreviado o pymes)

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

- Kontabilitate-mugimenduaren data.

- Idazpen mota, irekiera-, mugimendu-, erregularizazio- edo itxiera-idazpena den bereizita.

- Idazpenaren zenbakia eta lerroa.

- Kontu-kodea, Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren foru-agindu bidez onartzen den kodetzearen arabera.

- Zor duen zenbatekoa.

- Hartzekoaren zenbatekoa.

3. Kontabilitate-mugimenduen kapitulua osatzen duen fitxategiak erreferentziako ekitaldiari dagokion informazio guztia izango du.

4. Kontabilitate-mugimenduen kapitulua osatzen duen fitxategian oker materialik edo egitatezko akatsik egonez gero, hasieran aurkeztutako fitxategiaren ordezko bat aurkeztuta egingo da zuzenketa.

5. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 126. artikuluko 2. eta 3. apartatuen arabera Sozietateen gaineko Zergaren Aitorpena aurkeztera behartuta ez dauden zergapekoek ez dute aurkeztu beharko kontabilitate-mugimenduen kapitulua osatzen duen fitxategia».

Hogeita hiru. Berridatzi egiten da 43. artikuluko

- La fecha del movimiento contable.

- El tipo de asiento, distinguiendo si se trata del asiento de apertura, de movimientos, de regularización o de cierre.

- El número y línea del asiento.

- El código de cuenta, de acuerdo con la codificación que se apruebe mediante Orden Foral del diputado o diputada foral de Hacienda y Finanzas.

- El importe al debe.

- El importe al haber.

3. El fichero que compone el Capítulo de movimientos contables contendrá toda la información correspondiente al ejercicio de referencia.

4. En caso de error material o de hecho en el fichero que compone el Capítulo de movimientos contables, la subsanación se realizará mediante la presentación de un fichero sustitutivo del inicialmente presentado.

5. Los obligados tributarios que, de acuerdo con los apartados 2 y 3 del artículo 126 de la Norma Foral de Impuesto sobre Sociedades, no estén obligados a presentar la declaración del Impuesto sobre Sociedades, no deberán presentar el fichero que compone el Capítulo de movimientos contables."

Veintitrés. Se da nueva redacción a la letra e) del artículo 43, que queda redactada en los

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

e) letra, eta honela geratzen da idatzita:

« e) Araudi honetako 39 bis eta 39 undecies artikuluetan aipatzen diren zergapekoak, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua eraman behar dutenak».

siguientes términos:

"e) Las obligadas y los obligados tributarios a los que se refieren los artículos 39 bis y 39 undecies del presente Reglamento que deban llevar el libro registro de operaciones económicas."

Hogeita lau. 43. artikuluko f) letra kentzen da.

Veinticuatro. Se suprime la letra f) del artículo 43.

Hogeita bost. 1. Bis Atala eta 46 bis. artikulua kentzen dira.

Veinticinco. Se suprimen la Sección 1ªbis y el artículo 46 bis.

5. artikulua. *Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia aldatzen da; Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.*

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek sartzen dira Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudian, zeina Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen:

Bat. Edukirik gabe uzten da 68. artikuluko f) letra.

Bi. 68. artikuluko h) letra aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«h) Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebehar formalak araupetu dituen

Artículo 5. *Modificación del Reglamento de gestión de los tributos del Territorio Histórico de Bizkaia aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 112/2009, de 21 de julio.*

Con efectos a partir del 1 de enero de 2022, se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento de gestión de los tributos del Territorio Histórico de Bizkaia aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia.112/2009, de 21 de julio:

Uno. Se deja sin contenido la letra f) del artículo 68.

Dos. Se modifica la letra h) del artículo 68, que queda redactada en los siguientes términos:

"h) El incumplimiento de la obligación de llevanza y remisión del libro registro de

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

Araudiaren 39 bis eta 39 undecies artikuluetan aipatzen diren pertsonek eta entitateek ez betetzea eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egin eta igortzeko betebeharra (araudi hori Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen). Luzapenaren iraupena hau izango da: aitorpenak ondorioak izan ditzakeen prozedura bat hasten denetik aitorpenaren edukia Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez osorik igorri artekoa.»

operaciones económicas a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia para las personas y entidades a que se refieren los artículos 39 bis y 39 undecies del Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 205/2008, de 22 de diciembre. La dilación se computará desde el inicio de un procedimiento en el que pueda surtir efectos, hasta la fecha de la completa remisión de su contenido a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia."

6.Artikulua. *Fakturazio- betebeharrei buruzko Araudia aldatzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren bidez onartu zen araudi hori.*

Artículo 6. *Modificación del Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 4/2013, de 22 de enero.*

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudiaren 5. artikuluko 1. apartatuaren bigarren paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Con efectos a partir del 1 de enero de 2022, se modifica el segundo párrafo del apartado 1 del artículo 5 del Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 4/2013, de 22 de enero, que queda redactado en los siguientes términos:

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

"Balio Erantsiaren gaineko zergaren Araudiaren 62.6 artikuluan aipatzen diren pertsonen eta entitateen kasuan, eragiketen hartzaileek edo hirugarrenek faktura egiteko betebeharra betetzea hautatu badute, bada, orduan, zentsu-aitorpen bat aurkeztu beharko dute arestian aipatutako pertsona eta entitate horiek, eta komunikatu beharko dute zer egunetatik egiten duten hautu hori eta, hala eginez gero, zer egunetan egiten dioten uko eta uko horrek zer egunetatik dituen ondorioak.

"En el caso de las personas y entidades a que se refiere el artículo 62.6 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, que hayan optado por el cumplimiento de la obligación de expedir factura por los destinatarios de las operaciones o por terceros, deberán presentar una declaración censal comunicando dicha opción, la fecha a partir de la cual la ejercen y, en su caso, la renuncia a la misma y la fecha de efecto."

Xedapen gehigarri bakarra. *Autolikidazio-zirriborroak Balio Erantsiaren gaineko Zergan.*

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion autolikidazioa aurkeztu aurretik, Ogasun eta Finantza Sailak, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, zergadun guztien eskura jarriko ditu autolikidazio-zirriborroak. Horretarako, oinarritzat hartuko du eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuetan jasota dagoen likidazio-aldiari buruzko informazioa. Erregistro-liburu horiek Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 122 ter artikuluan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 114. artikuluan aipatzen dira.

Zehazki, autolikidazio-zirriborroak data

Disposición adicional única. *Borradores de autoliquidación en el Impuesto sobre el Valor Añadido.*

1. Con carácter previo a la presentación de la autoliquidación correspondiente del Impuesto sobre el Valor Añadido, el Departamento de Hacienda y Finanzas, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, pondrá a disposición de todos los y las contribuyentes borradores de autoliquidación partiendo de la información correspondiente al período de liquidación que conste en los libros registros de operaciones económicas, a los que hacen referencia los artículos 122 ter de la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades, y 114 de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

En particular, los borradores de autoliquidación

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

hauetan jarriko dira zergadunen eskura:

a) Hileko autolikidazioei buruzko zirriborroak, 17an edo likidazio-aldi bakoitza amaitu eta hurrengo hilabetearen lehenengo egun baliodunean.

b) Hiru hilean behingo autolikidazioei buruzko zirriborroak, apirilaren 20an, uztailaren 20an eta urriaren 20an, edo hurrengo egun baliodunean, dagokion lehen, bigarren edo hirugarren hiruhilekoaren arabera.

c) Azken hiruhilekoari dagozkion autolikidazioei buruzko zirriborroak edo urteko laburpenak, urtarrilaren 25ean edo hurrengo egun baliodunean.

Data horietan, zirriborroak sortzeko soilik, ulertuko da eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuak itxi direla –apartatu honen lehen paragrafoan aipatzen diren likidazio-aldi bakoitzari dagozkionak–, eta zergadunak isilbidez adierazten duela liburu horietan erregistratutako informazioa osorik osatuta dagoela xede den likidazio-aldirako.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoari kalterik egin gabe, zergadunak eskatu ahal izango du

se pondrán a disposición de los y las contribuyentes en las fechas que se establecen a continuación:

a) Borradores relativos a autoliquidaciones de carácter mensual, el día 17 o inmediato hábil posterior del mes siguiente al final de cada uno de los periodos de liquidación.

b) Borradores relativos a autoliquidaciones de carácter trimestral, los días 20 de abril, 20 de julio y 20 de octubre, o inmediato hábil posterior, según el trimestre primero, segundo o tercero al que corresponda.

c) Borradores relativos a autoliquidaciones correspondientes al último trimestre o resúmenes anuales, el día 25 de enero o inmediato hábil posterior.

En dichas fechas, y a los exclusivos efectos de la generación de los borradores, se entenderá producido el cierre de los libros registros de operaciones económicas, correspondientes a cada uno de los períodos de liquidación a los que se refiere el primer párrafo de este apartado, siendo de aplicación la presunción de que el o la contribuyente manifiesta de forma tácita que la información registrada en los mismos se encuentra completada en su totalidad para el periodo de liquidación objeto de presentación.

2. Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, el o la contribuyente podrá solicitar

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

autolikidazio-zirriborro bat eskura jartzeko aurreko data batean; zirriborro hori egiteko, aurreko apartatuan aipatutako erregistro-liburuetan erregistratuta dagoen informazioa hartuko da kontuan. Eskaera egiten den egunean, eta zirriborroa sortzeko soilik, likidazio-aldiari dagokion eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua itxi dela ulertuko da. Era berean ulertuko da zergaduna, eskaera aurkeztuta, adierazten ari dela erregistro-liburu horretan erregistratutako informazioa osorik osatuta dagoela, xede den likidazio-aldirako.

que se ponga a su disposición un borrador de autoliquidación en una fecha anterior, para cuya confección se tendrá en cuenta aquella información que se encuentre registrada en los libros registros a los que se refiere el apartado anterior. En la fecha de solicitud, y a los exclusivos efectos de la generación del borrador, se entenderá producido el cierre del libro registro de operaciones económicas correspondiente al período de liquidación, siendo de aplicación la presunción de que el o la contribuyente, con la presentación de la solicitud, está manifestando que la información registrada en dicho libro registro se encuentra completada en su totalidad para el periodo de liquidación objeto de presentación

Eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egin beharko da, zerga-administrazioak, ofizioz eta oro har, autolikidazio-zirriborroak zergadunen eskura jartzen dituen eguna baino lehen, aurreko 1. apartatuan zehazten den bezala, eta autolikidazio-zirriborro bat baino gehiago eskatu ahal izango dira data desberdinetan.

La solicitud deberá realizarse a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia con anterioridad a la fecha en la que, de oficio y con carácter general, la Administración tributaria pone a disposición de los y las contribuyentes los borradores de autoliquidación, tal y como determina el apartado 1 anterior, pudiendo solicitarse varios borradores de autoliquidación en diferentes fechas.

Zergadunak autolikidazio-zirriborroren bat eskatzen badu apartatu honetan xedatutakoarekin bat, zerga-administrazioak ez dio ofizioz emango autolikidazio-zirriborroa, artikulu honen 1. apartatuan zehazten diren

Cuando el o la contribuyente solicite algún borrador de autoliquidación según lo dispuesto en este apartado, la Administración tributaria no pondrá a su disposición de oficio el borrador de autoliquidación en las fechas a las que se

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

datetan.

3. Ogasun eta Finantza Sailak zirriborroak aurkezten dituenean, zergadunak zergaren autolikidazioa behar bezala egiteko behar diren datuak eta dokumentuak egiaztatu, baieztatu, aldatu eta/edo aurkeztuko ditu, dagokionaren arabera, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko ditu.

Zirriborroak sortzeko ondorioetarako soilik, aurreko 1. apartatuan adierazten diren eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuak itxitzat joko dira, eta ulertuko da zergadunak adierazten duela liburu horietako informazioa osorik beteta dagoela xede den likidazio-aldiari dagokionez. Hala ere, zergadunek dagozkion idatzohar berriak jaso beharko dituzte zergaren autolikidazioa behar bezala aurkezteko, Bizkaiko Lurralde Historikoaren zerga-betebehar formalak araupetu dituen Araudian ezarritako epea amaitu arte.

refiere el apartado 1 de este artículo.

3. Una vez que el Departamento de Hacienda y Finanzas haya procedido a la puesta a disposición de los borradores, el o la contribuyente verificará, confirmará, modificará y/o aportará, según proceda, los datos y la documentación que resulten necesarios para la correcta autoliquidación del Impuesto, debiendo presentarla a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

Sin perjuicio de que, a los exclusivos efectos de la generación de los borradores, se entienda producido el cierre de los libros registros de operaciones económicas a los que se refiere el apartado 1 anterior y sea de aplicación la presunción de que el o la contribuyente manifiesta que la información registrada en dichos libros se encuentra completada en su totalidad para el periodo de liquidación objeto de presentación, los y las contribuyentes deberán incluir las nuevas anotaciones registrales que, en su caso, procedan, a los efectos de la correcta autoliquidación del Impuesto hasta el fin del plazo establecido para ello en el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

4. Ogasun eta Finantza Sailak autolikidazio-zirriborro bat aurkeztu arren, zergadunak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztu beharko du Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez, baldin eta zerga hori arautzen duen araudian horretarako betebeharra duela adierazten bada.

4. La puesta a disposición de un borrador de autoliquidación por parte del Departamento de Hacienda y Finanzas no eximirá en ningún caso al o a la contribuyente de la obligación de presentar autoliquidación por el Impuesto sobre el Valor Añadido a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia cuando esté obligado a ello en virtud de la normativa reguladora de dicho Impuesto.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Zenbait erregistroren osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema bermatzailea borondatez aplikatzea, 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen.*

Foru-dekretu honen artikuluetan berariaz jasotako ondorioak gorabehera, zergadunek borondatez aplikatu ahal izango dute ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema informatiko bermatzailea, 2020ko urriaren 1etik aurrera.

Disposición transitoria primera. *Aplicación voluntaria del sistema garante de la integridad, conservación, trazabilidad e inviolabilidad de determinados registros con anterioridad a 1 de enero de 2022.*

Sin perjuicio de los expresos efectos contenidos en el articulado de este Decreto Foral, los y las contribuyentes podrán aplicar de forma voluntaria el sistema informático garante de la integridad, conservación, trazabilidad e inviolabilidad de los registros que documenten las entregas de bienes y las prestaciones de servicios desde el 1 de octubre de 2020.

Bigarren xedapen iragankorra. *Software bermatzailea 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen indarrean jartzea.*

Foru-dekretu honen 4. artikuluan berariaz jasotako ondorioak gorabehera, 2020ko

Disposición transitoria segunda. E*ntrada en funcionamiento del registro de software garante con anterioridad a 1 de enero de 2022.*

Sin perjuicio de los expresos efectos contenidos en el artículo 4 de este Decreto Foral, con el fin

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.

urriaren 1etik aurrera zergadunek borondatez aplikatu ahal izan dezaten ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroren osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema informatiko bermatzailea, software bermatzailearen erregistroa 2020ko irailaren 14an jarriko da indarrean.

de hacer posible que, desde el 1 de octubre de 2020, los y las contribuyentes puedan utilizar de forma voluntaria el sistema informático garante de la integridad, conservación, trazabilidad e inviolabilidad de los registros que documenten las entregas de bienes y las prestaciones de servicios, el registro de software garante entrará en funcionamiento el 14 de septiembre de 2020.

Azken xedapen bakarra. *Indarrean jartzea.*

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta beronen artikuluetan ezarritako ondorioak izango ditu.

Disposición final única. *Entrada en vigor*:

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia y producirá los efectos indicados en su articulado.

Bilbon, 2020ko irailaren 8an.

En Bilbao, a 8 de septiembre de 2020.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua

El diputado foral de Hacienda y Finanzas

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun nagusia

EL Diputado General

UNAI REMENTERIA MAIZ

Elektronikoki sinatutako dokumentua. SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) SK9T-H9YA-UQBZ-RFRO en www.ebizkaia.eus.